EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



# HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA: EUSKARA

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

## Item liberatuak 2010

ISEI•IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# ENTZUMENA - DBH 2. maila

Audioa entzun ondoren, 01-06 bitarteko galderak erantzun

## EUSKARAZ BAI

## Transkripzioa:

Hitzordua: Abenduaren 13an arratsaldeko 6etan.
Lekua: Barakaldoko BEC.
Ibilbidea: Kontseiluak lanean eman dituen 10 urteak.
Helmuga: Euskaraz Bai.
Erronka: Pauso bat harago ematea.
Kontseilua osatzen dugun euskararen gizarte erakundeok abenduaren 13an egingo dugun euskaraz bai ekitaldira gonbidatzen zaitugu.
Sarrera doan eskuratzeko sartu nierebanoa.com helbidean.

Pauso bat harago.

**01** Zer proposatzen digute testuan?

A. Zita bat.
B. Kontzertu batera joatea.
C. Mendian ibilbide bat egitea.
D. Geratzea toki batean arratsaldea pasatzeko.

***ITEMAREN DESKRIPZIOA***

***DIMENTSIOA***: Entzumena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoen lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: A. Zita bat.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** HASIERAKO MAILA.

**02** Zer aztertu nahi dute?

A. Barakaldo herrian ibilbidea.
B. Kontseiluak lanean emandako azken 10 urteak.
C. Barakaldon euskaraz egin duten azkeneko 10 urteak.
D. Euskaraz bai erakundeak egiteko duena datozen 10 urteetan.

## *ITEMAREN DESKRIPZIOA*

***DIMENTSIOA***: Entzumena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoen lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: B. Kontseiluak lanean emandako azken 10 urteak.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** ERDI-MAILA.

**03** Zein da xedea?

A. Testuan ez da zehazten.
B. Pausoz pauso, helburua lortzea.
C. Orain arte egin denarekin jarraitzea.
D. Lortu den puntutik abiatuta, harago joatea.

## *ITEMAREN DESKRIPZIOA*

***DIMENTSIOA***: Entzumena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoen edukia kritikoki interpretatzea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.

***ERANTZUN ZUZENA***: D. Lortu den puntutik abiatuta, harago joatea.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** ERDI-MAILA.

**04** Testuaren arabera, zer egin behar duzu sarrera bat lortzeko?

A. Sarrera erosi.
B. Ezer ere ez; dohainik da eta.
C. Helbide elektroniko batean sartu.
D. Tokian bertan agertu, sarrerarik ez baitago.

## *ITEMAREN DESKRIPZIOA*

***DIMENTSIOA***: Entzumena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoen edukia kritikoki interpretatzea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.

***ERANTZUN ZUZENA***: C. Helbide elektroniko batean sartu.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** HASIERAKO MAILA.

**05** Zein da testuaren helburua?

A. Ibilbide baterako gonbidatzea.
B. Langile batzuen bilera baterako deialdia egitea.
C. Ekitaldi baten berri ematea eta ekitaldirako gonbidapena egitea.
D. *Euskaraz bai* elkartearen aldeko kontzertu batera joateko gonbidatzea.

## *ITEMAREN DESKRIPZIOA*

***DIMENTSIOA***: Entzumena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoen **helburua antzematea**.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Testuaren xedea identifikatzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: C Ekitaldi baten berri ematea eta ekitaldirako gonbidapena egitea.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** ERDI-MAILA.

**06** Testu hau...

A. albistea da.
B. iragarkia da.
C. elkarrizketa da.
D. instrukziozkoa da.

## *ITEMAREN DESKRIPZIOA*

***DIMENTSIOA***: Entzumena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko testu nahiko konplexu eta ikasleen interesetatik gertukoen **helburua antzematea**.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Testuaren generoa identifikatzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: B. iragarkia da.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** ERDI-MAILA.

# IRAKURMENA – DBH 2. maila

## NOLA FUNTZIONATZEN DU... AIRBAG-AK?

Gaur egun hain ezaguna dugun airbag-aren ideia ez da batere berria: II. Mundu Gerran patentatu zuten lehenengoz. Dena den, 1980/81ean hasi ziren autoetan erabiltzen eta orduz geroztik garatu eta hobetu egin dituzte.

Ez ditugu airbag-en xehetasunak eta ereduen arteko desberdintasunak aipatuko,baina bai zein den airbag-aren oinarri-oinarrizko funtzionamendua.

Airbag-ak oinarrizko hiru osagai ditu:

1) sentsorea eta sistema elektronikoa,

2) lehergailua eta

3) poltsa bera.

| | |
|---|---|
|  | 1) Sentsoreak abiadura-aldaketak jasotzen ditu eta autoaren aurrealdean dago.<br>Sentsore horrek ibilgailuaren abiadura-gutxitze ia bat-batekoa neurtzen duenean (gutxi gorabehera 15 km/h abiaduran pareta joko balu adinakoa), seinale elektrikoa bidaltzen du sistema elektrikora.<br><br>2) Sistema elektrikoak lehergailuan txinparta sortarazi eta lehergailua lehertu egiten da. Ondorioz nitrogeno gasa sortzen da. |
| 3) Azkenik, sortutako nitrogenoak poltsa puztu egiten du, bidaiari(ar)en gorputz edota buruak poltsa jo aurretik.<br>Hori bai, erabat puztu eta bi segundora poltsa hustu egiten da bidaiaria(k) ez itotzeko. |  |

Prozesua:




Segundo-milarenak

Elhuyar, 2002/02/14

**01** Noiztik erabiltzen da airbag-a autoetan?

A. 1981etik hona.
B. II. Mundu gerratik hona.
C. Autoetan gaur egun erabiltzen da.
D. 1980- 1981 arteko urteetatik hona.

***ITEMAREN DESKRIPZIOA***

***DIMENTSIOA***: Irakurmena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Lortu nahi den helbururako garrantzizkoa den informazioa identifikatzen du: Berariazko informazioren bat aurkitzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: D. 1980- 1981 arteko urteetatik hona.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** HASIERAKO MAILA.

**02** Zerk hanpatzen du airbag-aren poltsa?

A. Txinpartak.
B. Sentsoreak.
C. Nitrogeno gasak.
D. Sistema elektronikoak.

***ITEMAREN DESKRIPZIOA***

***DIMENTSIOA***: Irakurmena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) lortu nahi den xederako garrantzizkoa den informazioa bereiztea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Lortu nahi den helbururako garrantzizkoa den informazioa identifikatzen du: Berariazko informazioren bat aurkitzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: C. Nitrogeno gasak.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** ERDI-MAILA.

**03** Testu hau...

A. narrazio bat da.
B. instrukzio testu bat da.
C. azalpenezko testu bat da.
D. komunikabideetako testu bat da.

***ITEMAREN DESKRIPZIOA***

***DIMENTSIOA***: Irakurmena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: 9. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) edukia kritikoki interpretatzea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Testuaren edukia berak dituen ezagupenen argitan interpretatzen ditu: Bere ideietatik abiatuta testuaren informazioa interpretatzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: C. azalpenezko testu bat da.

***KONPETENTZIA-MAILA*** : MAILA AURRERATUA.

**04** Zein da airbag-aren funtzioa?

A. Bidaiariak babestea.
B. Abiadura kontrolatzea.
C. Seinale elektrikoak bidaltzea.
D. Aurrez aurreko kolpeak saihestea.

***ITEMAREN DESKRIPZIOA***

***DIMENTSIOA***: Irakurmena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) edukia kritikoki interpretatzea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu: Testuaren edukiari buruz zuzeneko eta zeharkako inferentziak egiten ditu.

***ERANTZUN ZUZENA***: A. Bidaiariak babestea.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** ERDI-MAILA.

**05** Zein da testuaren helburua?

A. Airbag-a nola sortu zen eta zertarako kontatzea.
B. Airbag-aren osagaiak eta haien xehetasunak adieraztea.
C. Airbag-aren osagaiak eta oinarrizko funtzionamendua azaltzea.
D. Airbag-aren osagaiak eta ereduen arteko desberdintasunak esplikatzea.

***ITEMAREN DESKRIPZIOA***

***DIMENTSIOA***: Irakurmena.

***AZPI-KONPETENTZIA***: 7. Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) helburua antzematea.

***ITEMAREN HELBURUA:*** Igorlearen asmoa identifikatzen du.

***ERANTZUN ZUZENA***: C. Airbag-aren osagaiak eta oinarrizko funtzionamendua azaltzea.

***KONPETENTZIA-MAILA:*** ERDI-MAILA.

# IDAZMENA NEURTZEKO TESTUA
# DBH 2. maila

06

## IDATZI NARRAZIO BAT

**Beldurrezko narrazio** bat idatzi behar duzu; gaia datozen egoeretatik atera dezakezu:

- zuri gertatutako pasadizo bat,
- norbaitek kontatutako beldurrezko istorio bat,
- asmatutako kontu bat,
- irakurritako edo film batean ikusitako istorio bat
- etab.







- Ondo aukeratu zure ideiak.
- Informazioa era kronologikoan antolatu.
- Idatzi **100 hitz** gutxienez.

IDATZI BAINO LEHENAGO: pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu.

IDAZTEN ARI ZARENEAN, testuaren itxura zaindu, gramatika eta ortografia.

BUKATZEAN testua birpasatu.

........................................................................................................................

........................................................................................................................

........................................................................................................................

........................................................................................................................

........................................................................................................................

........................................................................................................................

........................................................................................................................

........................................................................................................................

# ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

1. **Gaitasun soziolinguistikoa edo egokitasuna**: hau da, testuaren helburua edo egoera komunikatiboan ongi kokatu, kasu honetan narrazio batean, non agertuko den beldurrezko istorio bat. Erregistroa formala erabili behar zuten, testuingurua proba batena baita. Atal honetan eskatutako gaia errespetatzea ere baloratzen da, eta zein pertsonan dagoen idatzita (narratzailearen bidegabeko aldaketak ez egotea, esate baterako).

2. **Gaitasun diskurtsiboa (koherentzia eta kohesioa)**: atal honetan koherentzia eta kohesioa aztertzen da funtsean, hau da, informazioaren progresioa eta antolamendua. Testuaren egitura narrazio batena izan behar zuen, izan ere, sarrera, garapena eta amaiera nolabait agertu behar ziren. Era berean, Informazioa modu koherente batean agertu behar zen. Halaber, testuaren kohesio eta koherentzia lortzeko erabili zituzten baliabideak aintzat hartu ziren.

3. **Hizkuntza gaitasuna** edo hiztegian, gramatikan, sintaxian eta ortografian erakusten zuten zuzentasun maila. Atal honetan, oinarrizko akats gramatikalak eta ortografikoak ebaluatzen ziren, betiere ulergarritasuna irizpidetzat harturik.

# ADIBIDEAK KONPETENTZIA-MAILAREN ARABERA

## HASIERAKO MAILA

Maila honetan agertzen diren testuak ez daude ondo garatuta, akats asko agertzen dira eta hutsune handiak daude ebaluatzen diren aipatutako arloetan.

Datozen adibideetan, gaia ez da garatzen eta, kasu askotan, informazioa baztergarria da. Ideien antolaketa ez da azalpenezko testu batena, edo ideiak ez daude era koherente batean azalduta. Nabaria da baliabide linguistikoen erabilera okerra dela. Lexikoa pobrea edo zehaztasun gutxikoa da, eta akats larriak agertzen dira gramatika eta ortografia arloetan.


*2E2E100116003*

03

B2EE0092

15 IDATZI NARRAZIO BAT

- Ondo aukeratu zure ideiak
- Informazioa era kronologikoan antolatu
- Idatzi **100 hitz** gutxienez **orri honetan** (atzean ez idatzi)

**IDATZI BAINO LEHENAGO** pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

**IDAZTEN ARI ZARENEAN,** testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

**BUKATZEAN** testua birpasatu

Gaur batean, bost lagunak etxe batean zortu ziren. Bere izenak: Aitor, Gonzalo, Cristian, Iker eta David. Etxe horretan mostu bat zegoen Bruitza andrak ziren Lagunak beldur ziren. Lagunak futbola jolasten ziren.

3λ

ISEI IVEI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

*2E2E100082303*

03

B2EE0092

## 15 IDATZI NARRAZIO BAT

- Ondo aukeratu zure ideiak
- Informazioa era kronologikoan antolatu
- Idatzi **100 hitz** gutxienez **orri honetan** (atzean ez idatzi)

**IDATZI BAINO LEHENAGO** pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

**IDAZTEN ARI ZARENEAN,** testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

**BUKATZEAN** testua birpasatu

Nire ustez oporretan oso erosoa da jolastea,
Eguzkia hartzea, uretan sartzea, leku ezberdinak
bisitatzea. Eta kurtsoan ikastakoa ahazten ~~zaigu~~ zait
Lan egitea udan asko kostatzen zait baina kontuan
izan beharko nuke gero askoz txarrago pasatuko
dudala eta berriro hasi beharko dudala printzipioz.
Beraz uste dut noizean behin ona dela errepasoak
egitea. Eta matematikan niretzat hobeto...

54

ISEI IVEI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**ERDI-MAILA**

Maila honetan dauden ikasleek duten idazte maila egokia da, ideiak ongi garatzen dituzte, eta errekurtso linguistikoak egoki erabiltzen dira. Hiztegi ezagupenak, ezagupen gramatikalak eta ortografikoen maila onargarria da.

Adibideetan ikus daitekeenez, ikasleak gai dira testuak era egoki samarrean idazteko. Batzuetan, testuaren helburua edo mota nahasten da. Ideiak garatuta daude eta nahikoa egituratuta. Bestalde, akats gramatikal zein ortografiko batzuk agertzen dira, ulergarritasuna eragozten ez dituztenak betiere.

*2E2E200350302*

02

07 **IDATZI NARRAZIO BAT** B2EE0092

- Ondo aukeratu zure ideiak
- Informazioa era kronologikoan antolatu
- Idatzi **100 hitz** gutxienez orri honetan (atzean ez idatzi)

**IDATZI BAINO LEHENAGO** pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

**IDAZTEN ARI ZARENEAN,** testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

**BUKATZEAN** testua birpasatu

Gaueko hamarrak ziren, hilerrian geudenean denek oso beldurtutak egoten ziren, dardarka. Bapatean, mutil batek motxilatik tablero bat atera zuen eta edalontzia ere. Neska bat, mutilari joka hari zen Guija ez egiteko baina zik-zak batean 10 neska-mutilak korroan eseri ziren. Mutilak espirituari deika hari zion. Azkenean, espiritu txarra atera zion, eta mutilaren gorputzean zartu zen. Denek ikusi zuten eta neska batek negarrez hasi zen. Mutilak altzatu eta tumba batera joan zen pala bat artu zuen eta buruan eman zen. Mutilak tumbara jausi zenean espiritua joan zen, baina mutilak eta neskak korrika joan ziren bere aita eta amarengana dena kontatzeko. ~~Aitak~~ Denen aitak, hilerrira joan ziren eta mutila ez zegon tumban, kruz batean kruz fijatuta baizik. Aita guztiak polizira deitu zuten, eta inbestigatzen hasi ziren hurrengo egunean

+100

*2E2E100115303*

(03)

B2EE0092

**15** **IDATZI NARRAZIO BAT**

- Ondo aukeratu zure ideiak
- Informazioa era kronologikoan antolatu
- Idatzi **100 hitz** gutxienez **orri honetan** (atzean ez idatzi)

**IDATZI BAINO LEHENAGO** pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

**IDAZTEN ARI ZARENEAN,** testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

**BUKATZEAN** testua birpasatu

Ostiraleko gaua zen. 12etan. Nire anaiarekin eta 3 mutil gehiago nuen, baina mutil guztiaz 7 urte baino gutxiago ziraten. Nire etxeko atzeko nendietan geunden, eskondite jolasten. Bitartean, zerbait raro entzun genuen. Mutilak nirekin etorri dira beldur-beldurrez. Momentu honetan, auto beltz bat agertu zen. Gizon bat atera zen, eta ibili ari zen, norbait edo zerbait buscatzen. Gero berriz autora joan zen. Guk atera giren gure escondite, eta oso apurua joan giren gure etxera, baina autoaren gizona ikusi digu eta bueltako eman zion autori, guri arrapatzeko. Etxera heldu giren eta atera itzi genuen. Bai beldur!

93

ISEI IVEI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## MAILA AURRERATUA

Maila honetan dauden ikasleen idazte maila altua da; oso ongi garatzen dituzte ideiak eta ongi egitaratuta ere. Ikasleek badakite errekurtso linguistikoak egoki erabiltzen. Hiztegi ezagupenak, ezagupen gramatikalak eta ortografikoen maila ona da.

Datozen adibideetan, bi testuek betetzen dute proposatutako helburua: azalpenezko testuarena, eta formatu horretara egokitzen dira. Informazioa era koherentez azaltzen da eta horretarako behar diren baliabideak erabiltzen dira (paragrafoak, konektoreak, etab.) Erabilitako erregistroa egokia da. Ez dira inkoherentziarik agertzen eta informazioa aurrera egiten du testuan. Lexiko, gramatika zein ortografiaren erabilera zuzena da.


*2E2E200350002*

02

07 **IDATZI NARRAZIO BAT**

B2EE0092

- Ondo aukeratu zure ideiak
- Informazioa era kronologikoan antolatu
- Idatzi **100 hitz** gutxienez orri honetan (atzean ez idatzi)

**IDATZI BAINO LEHENAGO** pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

**IDAZTEN ARI ZARENEAN,** testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

**BUKATZEAN** testua birpasatu

Bazen behin motorista fantastiko bat. Motorista arrunta zen, beste motoristak bezala, gainera gauza dibertigarriak egiten zituen motorrarekin espektakulo batean. Baina egun batean gizon bat etorri zen eta gauza asko esan zizkion. Haietariko bat zen, zuk motorista fantastiko bat izango zaira baina gauean gauza arraroak gertatuko zaizkizu. Kontratu hau sinatu eta motorista fantastikoa izango zara esan zion gizonak. Berak sinatu zuen eta bapatean gizona desagertu egin zen. Gaua iritsi zenean, motorrarekin buelta bat ematera joan zen. Bueltatu zenean ispiluan begiratu zen eta eskeleto bat bihurtu zen, gainera sua botatzen zuen. Bera beldurrez bere emazteari deitu zion eta bere emaztea ez zekien nor zen, hil nahi zuen. Azkenean gizonari deitu zion eta kontratua apurtu zuen. Esan zuen ez zuela inoiz gehiago motorrarekin ibiliko eta ala izan zen

+100

*2E2E201482602*

02

B2EE0092

**07** **IDATZI NARRAZIO BAT**

- Ondo aukeratu zure ideiak
- Informazioa era kronologikoan antolatu
- Idatzi **100 hitz** gutxienez orri honetan (atzean ez idatzi)

**IDATZI BAINO LEHENAGO** pentsatu zertaz idatziko duzun eta zure ideiak antolatu

**IDAZTEN ARI ZARENEAN,** testuaren itxura, gramatika eta ortografia zaindu

**BUKATZEAN** testua birpasatu

Duela denbora asko, bazegoen Euskal Herrian herri txiki bat "Fradgie" deitzen zena. Bertan, bakarrik familia bat bizi zen eta inork ez zen hara joaten. Bere kaleak ilun zeuden eta handik ibiltzea benetan beldurgarria zen.

Esaten duten arabera, behin, 11 urteko mutiko bat Fradgira joan zen familia ezezagun horri buruz zerbait jakiteko asmoz. Baina, denbora eta denbora pasa ahala, mutila ez zen bueltatzen, eta orain, hori gertatu zenetik 30 urte pasa dira. Istori esaten du, gizon zahar bihurtu dela, jatekorik ez duela eta bere ile luze eta zikinak bere aurpegia estaltzen duela, mostro ikaragarri zerbaitean bihurtuta.

Nik, zurrumurru horiekin bukatzeko, hara abiatu nintzen. Nire kotxearekin nindoan eta errepidearen erdian gelditu zitzaidan. Asmorik gabe baina, ibiliz joan nintzen.... Ailegatzean, kartel zahar eta erditik apurtuta bat zegoen, "FRADGIE" esaten zuena. Aurrerantz zegitu nintzen eta, eskuineko hirugarren etxearen leihoan zerbait ikusi nuen! Bat-batean, nire gainean salto egiten zuen gizon hura ikusi nuen, chikatu eta...

100+